

## Instituzio-bidearen hobariak

*Deia*, 1978-09-14.

Alde askotatik begiratuta egin genezake Euskaltzaindiak Bergaran hospa berri duen VIII. Biltzar honen azterketa.

Nere hontan hasi aurretik, oharpen bat.

Hizkuntza dela-eta, euskaraz batera edo bestera egiten dugunon hauzia asko politizatu dugunez, eta bereziki euskaldun garanontzako arazoa izan arren euskaldun ez diren euskotar eta batez ere basko askoren istiluharmagailu eta euskaraz ez ikastearen aitzaki bihurtu dutenez, euskaldunen artean ditugun istilu-arazo hoiak euskaraz aztertzeko erabakia hartua dut aspaldi.

Gero, Biltzar hontaz beste ikuspuntuaz erdaraz idazteko asmoa badut ere, hara hemen euskaldunentzat Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrak adierazgarrienik zer ikusten dutan.

Behin baino gehiagotan adierazi nahi izan dut gauzak funtsez egiteko Instituzioak duen garrantzia; nere ustez, bide bakarra. Ez bakarrik Herri baten politika bideak eraikitzeko, baita Herri horren Hezkuntza eratzeko, Justizia antolatzeko, Gizartekoak konpontzeko, eta, noski, baita herri horren Hizkuntza zaindu eta indartzeko ere.

Batez ere, gurea dagoen egoera larri hontan.

Nola eraiki genezake guk nahi eta behar dugun Euzkadi, instituzio edo erakunde bide horiek gabe?

Guda amaitu zenean, gure erakunde zahar eta berriak itotzeko ahalegin txar guztiak egin zituzten. Batzu, nolabait hemendik kanpo neketan iraun zuten: hara hor Euzkadiko Jaurlaritza, exenplu bitxia, azterketa sakon baten zain dagoena, eta baita Partidu batzu ere; eta Jaurlaritza eta alderdi batzuen ordezkari bitartez Francopéan isileko jarraimen arriskugarria batzuk izan bazuten ere, nolabait berpiztu eta zutunik jarri zen bakarra, Euskaltzaindia izan zen.

Hau, Azkue-ri esker, batez ere, eta gero beste jaun batzuen laguntza bidez.

Hemen ez naiz Euskaltzaindiaren historia egiten hasiko; hau beste hauzia baita. Gaur eta hemen, Euskaltzaindiak erakunde bezala begien bixtan Bergaran jarri digun ondorio nabarmen eta bakar bat erakutsi nahi nuke.

Hor azaldu ditu Euskaltzaindiak Arantzazun hartutako bideak azken hamar urte hoietan zer eragin izan duen.

Erakusketa hau harrigarria izan da, bai mailez, eta baita ugaritasunean ere. Eta hau ez da milagro baten ondorioa izan, ez baita hemen milagrorik gertatu. Hemen: 1) erantzunkizun bat bere bizkar hartu zuten gizon batzuen lan ugari eta onuragarriak erakutsi dira; eta ez hutsik eta lohidurarik gabekoak, hau zeruko birjintasuna baita, adimenak eta lanak hemen, lurrean, *eta batez ere Instituzio bidez*, egindakoak baizik. 2) Honen buruz buru, bakoitzak berez ari izateak dituen ondorioak ere berez geratu dira agerian: lan baliotsu bat edo beste, baina bakartiak, planifikatu gabeak, eta gaur Euskara

dagoen egoera larriari beste aukera bat eskeintzeko gauza ez direnak, beraz; gainera, sail hontan dagoen euskaldun baliotsu bat baino gehiago ez da Bergarara etorri, ezta idazki bidez ere.

Zer irakaspen atera behar dugu hontatik?

Euskara aurrera atera nahi badugu, ikastoletan eta eskola nazionaletan, irrati eta Telebixta bideetan, nonnahi, euskara normalizatu bakar bat gaur bertan behar dugunez. Hemendik aurrerako eragozpenak espainiarrei bakarrik ezin zama genezakela.

Lan honek, euskalkiak baztertu gabeko euskara batu bat eskatzen, exigitzen, duela.

Honetarako, gure Instituzio bide ofizialaren barruan lan egin beharra gero eta larriagoa dela, eta ez kanpotik. Eta barruan, ez frankotiradore gisa, bakoitza bere kasa, erabaki nagusiak hartzeko lanetan partaide izan eta gero erabakitzen den araua onartzeko asmo emankor eta zabal batekin baizik.

Bestela, gehauk itoko dugu Euskara pertsonalismoak sortzen duen seta-anarkian.